

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

3735

EBAZPENA, 2018ko uztailaren 4koa, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearena, zeinarekin argitara ematen baita arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntzen II. faserako deialdia (Elkartek Programa) 2018ko ekitaldirako.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2016ko abenduaren 9ko Agindua-ren bidez, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntza-programa arautzen da –Elkartek Programa– (2016ko abenduaren 29ko EHAA, 247. zk.).

Aipatutako agindu arautzailearen 10.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, II. fasearen deialdia egin behar da, I. fasean onartu diren proiektuei laguntzak esleitzeko, eta, horretarako, behar diren arauak eman behar dira.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 10. artikuluan ezarritako eskumenaz baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen helburua hau da: II. fasearen deialdia egitea, I. fasean onartutako proiektuetarako laguntzak esleitzeko. Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2016ko abenduaren 9ko Aginduan aurreikusi zen I. fasea, eta horretarako deialdia 2017ko abenduaren 13ko Ebazpenaren bitartez egin zen (2017ko abenduaren 20ko EHAA, 241. zk.). Aipatutako agindu horren bitartez, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntza-programa arautzen da (Elkartek Programa), 2018ko ekitaldiari dagokionez. Proiektuak 2018ko eta 2019ko ekitaldietan egitekoak izango dira.

2. artikulua.– Eskabideak eta epea.

Deialdiko laguntzak finantzatzeko, 35.000.000,00 euro erabiliko dira. Erabilpen horrek bat etorri beharko du Euskal Autonomia Erkidegoaren 2018ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan hartarako ezarritako aurrekontu-kredituekin. Abenduaren 22ko 5/2017 Legearen bidez onartu ziren aurrekontu horiek.

Eskatutako laguntzen guztizko zenbatekoa kontuan izanik eta haiek ebatzi baino lehen, zenbateko horiek aldatu ahal izango dira; betiere, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatzearen ondorioz agortu gabe geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera. Aldaketarik izanez gero, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordeak ebazpena emango du, aurreko guztiaren berri emateko.

3. artikulua.– Betekizunak.

Deialdi honetako laguntzak eskuratu ahal izateko, egiaztatu beharko da Elkartek programa arautzen duen aginduaren 3. eta 18. artikuluetan proiektu eta entitate eskatzaileei buruz ezarritako baldintzak betetzen direla.

4. artikulua.– Eskabideak: aurkeztea eta epea.

1.– Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2016ko abenduaren 9ko Aginduaren 11. artikuluan ezarritako zehaztapenekin bat etorri egin beharko da eskabidea –agindu horren bitartez, arlo estrategikoetan elkarlaneko ikerketa sustatzeko laguntza-programa arautzen da (Elkartek Programa).

2.– Honako egoitza elektronikoen bidez bakarrik eskuratu eta bete ahal izango da eskabidea:

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/es/> (gaztelania)

<http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/r44-teletram/eu/> (euskara)

3.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 09:00etan; amaitu, berriz, 2018ko irailaren 12ko 12:00etan amaituko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, eta laguntzak emateko proposamena egiteko, ebaluazio-organo bat eratzen da, zeinaren osaera hauex izango baita:

Lehendakaria: teknologiaren arloan eskuduna den zuzendaritzako titularra, Iosu Madariaga Garamendi; eta ordezkoa: teknologiaren arloan eskuduna den sailburuordetzako titularra, Estibaliz Hernáez Laviña.

Honako kide hauek izango dira bokalak:

- Industriaren garapenaren arloan eskumenak dituen zuzendaritzako titularra, Alejandro López Cárcamo; eta ordezkoa: industriaren garapenaren arloan eskumenak dituen zuzendaritzako teknikari bat, Agustín García Pérez.

- SPRIren ordezkari bat, Alberto Fernández González; eta ordezkoa: Maite Hernández Hernández.

- Teknologiaren arloan eskumenak dituen zuzendaritzako teknikari bat, Jesús Ángel Martínez Martínez; eta ordezkoa: Natividad Niño Bartolomé, zeinak idazkari-eginkizunak burutuko dituen.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.


AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 4a.

Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordea,
ESTÍBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.

2018ko uztailaren 19a, osteguna



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILADEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

ELKARTEK 2018

Ikerketa kolaboratiboa eremu estrategikoetan

ESKAERA (liderrak aurkeztu beharrekoa)
IMPRESO TC-1 - II. FASEA

Jn./Andreak:

NAN/AIZ:

Honako honen ordezkartizan

Erakundea:

IFZ:

Bizi denak

Udalerrria: /

P.K.:

Kalea eta Zk:

Harremanetarako pertsona:

Telefonoa:

Faxa:

E-maila:

PROIEKTUAREN LIDER DEN ALDETIK HAUXE ESKATZEN DU:

Arlo estrategikoetako elkarlaneko ikerketa sustatzeko ELKARTEK 2018 programako laguntzak ematea I. fasean onartutako Mota 1: Oinarrizko Ikerketa Kolaboratiboko proiekturako, zeina jarraian azaltzen baita:

Akronimoa / Titulua:

Parte-hartzaileak:

IFZ	Erakundea:	Parte-hartzea €- tan	Eginkizuna
Gutzizkoak:			

**ELKARTEK 2018**

Ikerketa kolaboratiboa eremu estrategikoetan

PROIEKTUAN PARTE HARTZEA*(parte-hartzaile guztiek bete beharrekoa, liderrak barne)***IMPRESO TC-2 - II. FASEA**

Jn./Andreak:

NAN/AIZ:

Honako honen ordezkartizan

Erakundea:

IFZ:

Bizi denak

Udalerrria:

P.K.:

Kalea eta Zk:

Harremanetarako pertsona:

Telefona:

Faxa:

E-maila:

Zein udalerritan gauzatzen den jarduera subentzionagarria:

AITORTZEN DU:

Mota 1: Oinarrizko Ikerketa Kolaboratiboko proiektuan parte hartzen du

Akronimoa / Titulua:

eta proiektuaren Liderra::

Hurrengo aurrekontuzko xehatzearekin (€tan):

Langileen zuzeneko kostuak	Azpikontratatura	Amortizazioa	Gastuak	Guztira

BAIMENA EMATEN DIOT Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren garapena eta azpiegitura sailari edota dagokion lurralde bulegoari zuzenean edota SPRI S.A. eska diezaien zerga arazoetan eskumena duten organoei nire ordezkatuak zerga betebeharrak eta gizarte-segurantza bete dituela egiaztatzen duen agiria, beti ere Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretatik dirulaguntzak jasotzen dituzten onuradunen zergen betepenaren egiaztapenari buruzko 1991ko urriaren 7ko Aginduan eta ondoren egindako eguneratzeetan ezartzen denaren arabera.

2018ko uztailaren 19a, osteguna



ERAGIN PIZGARRIA ZIURTATZEN DUEN AITORPENA

..... jn./and., (IFZ:) ordezkatuz eta haren izenean, kargua eta indarrean dagoen notarioaren ahalordea izanik.

PROIEKTUAREN DATUAK		
LAGUNTZA PROGRAMA	ESPEDIENTEA	AKRONIMOA
PROIEKTUAREN EDO JARDUERAREN AZALPENA		
AITORPENA		
<p>Eskatutako laguntza beharrezkoa dela goian aipatutako proiektuan aurreikusitako helburuak lortzeko, eta laguntza horrek pizgarri efektua izango duela, enpresako I+G+B-ko jarduerak ugarituko direlarik. Hori guztia adierazle hauen bidez zehaztuko da:</p> <p><input type="checkbox"/> <i>proiektu edo jardueraren tamaina nabarmen handituko da</i></p> <p><input type="checkbox"/> <i>proiektu edo jardueraren aplikazio esparrua nabarmen handituko da</i></p> <p><input type="checkbox"/> <i>proiektuaren exekuzio erritmoa nabarmen azkartuko da</i></p> <p><input type="checkbox"/> <i>I+G-n gastatutako zenbatekoa nabarmen handituko da</i></p>		
JUSTIFIKAZIOA <small>(AURREKO ATALEAN AUKERATUTAKO IRIZPIDEAREN AZALPEN LABURRA)</small>		
ERANTZUKIZUNEZKO AITORPENA		
<p>Eskatzaileak edo bere ordezkariek bere ardurapean aitortzen du agiri honetan emandako datuak zehatzak direla eta bat datozela indarrean dagoen legeriarekin.</p>		

Noiz eta:

- **Proiektuaren edo jardueraren tamaina nabarmen handitzen denean**, laguntzak proiektuaren guztizko kostua handitzeko balioko du onuradunaren gastua murriztu gabe, proiektu berak laguntzarik gabeko egoera batean izango lukeenarekin alderatuta. Baita ere balioko du I+G+B arloko langile kopurua handitzeko.
- **Proiektuaren aplikazio esparrua nabarmen handitzen denean**, laguntzak proiektutik espero diren emaitzen kopurua edo haien kalitatea handitzeko balioko du, eta baita ere arrakastarako aukera gehiago eta aurrerapen zientifiko edo teknologiko handiagoak dituen proiektu handinahitsuago bat planteatzeko.
- **Proiektuaren exekuzio erritmoa nabarmen azkartzen denean**, laguntzak proiektua amaitzeko behar den denbora murrizteko balioko du, proiektu berak laguntzarik gabeko egoera batean beharko lukeen denborarekin alderatuta.
- **I+G+B-n eginiko gastua nabarmen handitzen denean**, laguntzak enpresaren guztizko I+G+B-ko gastua edo proiektu zehatz batena handitzeko balioko du, beste proiektu batzuetara bideratutako aurrekontua murriztu gabe. I+G+B-n egindako guztizko gastua handituko litzateke negozio bolumenaren portzentaje gisa.



ERANTZUKIZUNEZKO AITORPENA

..... jn./and., den aldetik eta indarrean dagoen notarioaren ahalordea duelarik, izenean eta hura ordezkatzuz (.....IFZ). Enpresa horrek parte hartzen du ELKARTEK 2018 programara aurkeztutako : Oinarrizko Ikerketa Kolaboratiboko proiektuan.

AITORTZEN DU


1. Proiektu berarentzat beste erakunde publiko zein pribatu batzuetan onartu edota eskatu diren laguntzen zerrenda.

Erakundea	Programaren izena	Aurkeztutako kostu subent.	Eskatutako zenbatekoa	Emandako zenbatekoa	Emate data

Halaber, konpromisoa hartzen du erakunde publiko eta pribatuetan, aurtengo ekitaldian eta proiektu honetarako, egiten duen laguntzaren eskaerak komunikatzeko.

2. Egunean daudela Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako zerga betebeharretan.
3. Erakunde eskatzaileak ez duela diru-itzultze edo zigor espedienterik, administrazio-zehapenik edo zehapen penalik eta, beraz, ez duela galdu diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik. Halaber, adierazi behar du ez daukala aipatutakoak eskuratzeko ezgaitzen duen legezko galarazpenik, ezta sexu bazterkeriaren bat gertatu delako ezarritako debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoaren arabera.
4. Erakunde eskatzailea ez dagoela berreskuratze-agindu baten menpe, zeina Europako Batzordeak ematen baitu laguntza bat legez kanpoko edo merkatu erkidearekin bateraezina dela erabaki ondoren.

2018ko uztailaren 19a, osteguna



EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE DEBARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

ELKARTEK 2018

Ikerketa kolaboratiboa eremu estrategikoetan

PROIEKTUAN PARTE HARTZEA*(parte-hartzaile guztiak bete beharrekoa, liderrak barne)***IMPRESO TC-2 - II. FASEA**

Jn./Andreak:

NAN/AIZ:

Honako honen ordezkartzan

Erakundea:

IFZ:

Bizi denak

Udalerrria: /

P.K.:

Kalea eta Zk:

Harremanetarako pertsona:

Telefonoa:

Faxa:

E-maila:

Zein udalerritan gauzaten den jarduera subentzionagarria:

AITORTZEN DU:

Mota 1: Oinarrizko Ikerketa Kolaboratiboko proiektuan parte hartzen du

Akronimoa / Titulua:**eta proiektuaren Liderra:**

Hurrengo aurrekontuzko xehatzearekin (€tan):

Langileen zuzeneko kostuak	Azpikontratatuta	Amortizazioa	Gastuak	Guztira

BAIMENA EMATEN DIOT Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren garapen eta azpiegitura sailari edota dagokion lurralde bulegoari zuzenean edota SPRI S.A. eska diezaien zerga arazoetan eskumena duten organoei nire ordezkatuak zerga betebeharrak eta gizarte-segurantza bete dituela egiaztatzen duen agiria, beti ere Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretatik dirulaguntzak jasotzen dituzten onuradunen zergen betepenaren egiaztapenari buruzko 1991ko urriaren 7ko Aginduan eta ondoren egindako eguneratzeetan ezartzen denaren arabera.

BAIMENA EMATEN DIOT Liderrari laguntza eskatzeko gure izenean.

3tik 1 orrialdea

2018ko uztailaren 19a, osteguna



ERAGIN PIZGARRIA ZIURTATZEN DUEN AITORPENA

..... jn./and., (IFZ:) ordezkatur eta haren izenean, kargua eta indarrean dagoen notarioaren ahalordea izanik.

PROIEKTUAREN DATUAK		
LAGUNTZA PROGRAMA	ESPEDIENTEA	AKRONIMOA
PROIEKTUAREN EDO JARDUERAREN AZALPENA		
AITORPENA		
<p>Eskatutako laguntza beharrezkoa dela goian aipatutako proiektuan aurreikusitako helburuak lortzeko, eta laguntza horrek pizgarri efektua izango duela, enpresako I+G+B-ko jarduerak ugarituko direlarik. Hori guztia adierazle hauen bidez zehaztuko da:</p> <p><input type="checkbox"/> proiektu edo jardueraren tamaina nabarmen handituko da</p> <p><input type="checkbox"/> proiektu edo jardueraren aplikazio esparrua nabarmen handituko da</p> <p><input type="checkbox"/> proiektuaren exekuzio erritmoa nabarmen azkartuko da</p> <p><input type="checkbox"/> I+G-n gastatutako zenbatekoa nabarmen handituko da</p>		
JUSTIFIKAZIOA <small>(AURREKO ATALEAN AUKERATUTAKO IRIZPIDEAREN AZALPEN LABURRA)</small>		
ERANTZUKIZUNEZKO AITORPENA		
<p>Eskatzaileak edo bere ordezkariak bere ardurapean aitortzen du agiri honetan emandako datuak zehatzak direla eta bat datozela indarrean dagoen legeriarekin.</p>		

Noiz eta:

- **Proiektuaren edo jardueraren tamaina nabarmen handitzen denean**, laguntzak proiektuaren guztizko kostua handitzeko balioko du onuradunaren gastua murriztu gabe, proiektu berak laguntzarik gabeko egoera batean izango lukeenarekin alderatuta. Baita ere balioko du I+G+B arloko langile kopurua handitzeko.
- **Proiektuaren aplikazio esparrua nabarmen handitzen denean**, laguntzak proiektutik espero diren emaitzen kopurua edo haien kalitatea handitzeko balioko du, eta baita ere arrakastarako aukera gehiago eta aurrerapen zientifiko edo teknologiko handiagoak dituen proiektu handinahitsuago bat planteatzeko.
- **Proiektuaren exekuzio erritmoa nabarmen azkartzen denean**, laguntzak proiektua amaitzeko behar den denbora murrizteko balioko du, proiektu berak laguntzarik gabeko egoera batean beharko lukeen denborarekin alderatuta.
- **I+G+B-n eginiko gastua nabarmen handitzen denean**, laguntzak enpresaren guztizko I+G+B-ko gastua edo proiektu zehatz batena handitzeko balioko du, beste proiektu batzuetara bideratutako aurrekontua murriztu gabe. I+G+B-n egindako guztizko gastua handituko litzateke negozio bolumenaren portzentaje gisa.



ERANTZUKIZUNEZKO AITORPENA

..... jn./and., den aldetik eta indarrean dagoen notarioaren ahalordea duelarik, izenean eta hura ordezkatzuz (.....IFZ). Enpresa horrek parte hartzen du ELKARTEK 2018 programara aurkeztutako: Oinarrizko Ikerketa Kolaboratiboko proiektuan.

AITORTZEN DU

1. Proiektu berarentzat beste erakunde publiko zein pribatu batzuetan onartu edota eskatu diren laguntzen zerrenda.

Erakundea	Programaren izena	Aurkeztutako kostu subent.	Eskatutako zenbatekoa	Emandako zenbatekoa	Emate data

Halaber, konpromisoa hartzen du erakunde publiko eta pribatuetan, aurtengo ekitaldian eta proiektu honetarako, egiten duen laguntzaren eskaerak komunikatzeko.

2. Egunean daudela Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako zerga betebeharretan.
3. Erakunde eskatzaileak ez duela diru-itzultze edo zigor espedienterik, administrazio-zehapenik edo zehapen penalik eta, beraz, ez duela galdu diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik. Halaber, adierazi beharko du ez daukala aipatutakoak eskuratzeko ezgaitzen duen legezko galarazpenik, ezta sexu bazterkeriaren bat gertatu delako ezarritako debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoaren arabera.
4. Erakunde eskatzailea ez dagoela berreskuratze-agindu baten menpe, zeina Europako Batzordeak ematen baitu laguntza bat legez kanpoko edo merkatu erkidearekin bateraezina dela erabaki ondoren.